

← ATZERA

## Film laburren jaialdiak: ikasleentzako ikaskuntza eta autoezagutzarako bide

Carolina Muñoz, Ikus-entzunezko Komunikazioko ikaslea: «Zoragarria iruditu zait ikaskuntza esperimentalak; ahalik eta esparru gehienetara eramango nuke»

ERREPORTAJEAK 2020/01/09



Carolina Muñozek eta bere taldekideek Bizitegik antolatutako "Homeless Film Festival"-aren 1. saria jaso zutenean. Argazkia: Bizitegi

Ikasturtean zehar, ikasleek jarduera eta lehiaketetan parte hartzen dute eta UPV/EHUK hainbat modutan parte hartzen du horietan, bereziki, nabarmentzekoak diren hiru jaialdi hauetan: Zinebi Express

(<http://zinebi.eus/web/zinebi61/zinebiexpress/>), Homeless Film Festival (<https://homelessfestival.org/>) eta Invisible Express (<https://www.kcd-ongd.org/edicion-2019>).

Sormenaren magia, antzezleen irriak, argiak, kamera eta ekin, horiez beterik izaten dira galak eta ekitaldion preproduzioa. Martxan jarri zenetik hamar urte baino gehiago igaro diren honetan, Zinebi Expressek arrasto sakona utzi du parte hartzaileengan. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak, IMVALek, Claro de Lunak, ECPVk eta CIFP Tartanga LHilk antolatzen dute lehiaketa, eta EHUKultura (UPV/EHU) unibertsitate kulturako sareak babesten du.

Zinebi Express jaialdiaren xedea da ikasten ari diren errealizatzaile gazteen parte hartzea sustatzea. «Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Jaialdia hiriarri oso lotuta dago, eta hiria bera ikusgarri egiteko modu bat da, filmak bertan grabatu behar baitira», azaldu du Estíbaliz Alonsok, jaialdiaren antolakuntzako kide eta UPV/EHUko irakasleak.

«Gainera –jarraitu du Alonsok–, baliagarria da ikasleak ikus-entzunezkoen ingurune profesionalera, alegia, lan dinamika profesionaletara, hurbiltzeko, eta zinema jaialdien eta ikus-entzunezkoen lehiaketan errealitatean sartzea errazteko».

Bizitegi (<https://www.bizitegi.org/>) elkarte antolatzailea dela, Homeless Film Festival (HFF) jaialdia gizarte bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen gizarteratzeari buruz sentsibilizatzeko ahalegina da. Ekitaldiak garrantzi handia du Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko Miren Gabantxo irakasle den Komunikazio Komertziala, Korporatiboa eta Instituzionala ikasgaietan. Jaialdian parte hartzea «ikaskuntza esperientziala da; lau asteko egiazko proiektu batean parte hartzen da, lehen eskola astetik hasita», nabarmendu du Gabantxok. Bere iritzian: «Campusetik irten eta errealitate ezezagun batean barnatuta Bilboko pertsona etxegabeekin kolektiboarekin solastatzea pizgarri handia da ikasleentzat».

Aipatu ikasgaiako ikasle den eta HFFren azken edizioan 'Resiliencia' (<https://www.youtube.com/watch?v=p83O490-v4E>) bideoarekin irabazle atera zen Carolina Muñozek zera uste du: «Horrelako lanekin, dinamikoagoak dira ikasgaiak; gainera, jaialdi eta jarduera horiek beharrezkoak ditugu, ez soilik mundu profesionalean topatuko dugunari antza hartzeko, baizik baita lan arlora hurbiltzeko ere, sarri askotan ez baitugu errealitate horri erreparatzen».

Express jaialdiek beti dute eragozpen bera; denbora mugatua da. Alabaina, «zeuretik onena ematera behartzen zaituzte, daukazun trebetasunak azaleratzera, eta lan mundua barnetik ezagutzeko aukera duzu», azpimarratu du Muñozek.

Ikasleak argi du: «Zoragarria iruditu zait ikaskuntza esperimentalak; ahalik eta esparru gehienetara eramango nuke. Gainera, lehiaketa horiek publiko gazteagoarengana hurbiltzeko bide dira, honetan hasiberriak garenongana», esan du Muñozek.

Proiektua ekinezko ikaskuntzako metodologiaren barnean dago, eta Gabantxok zera uste du: «Ikaslearen kompetentziak distira egitea da xedea; saridun ateratzen direnean, zirrara eragiten du UPV/EHUn, saiatuz gero, zer-nolako sentiberatasuna eta adimena garatu dezakegun ikusteak».

Unibertsitatea, halaber, Garapenerako Lankidetzaren Bulegoaren bitartez, Film Sozialak, Zinema Ikusezineko Nazioarteko Jaialdiarekin elkarlanean aritzen da. Kultura, Communication y Desarrollo GGKEk antolatzen du, eta express lehiaketa bat hartzen du barnean, ikasleei zuzendua.

Gai sozial bat lantzen da urteko edizio bakoitzean; iazkoan, klima aldaketa, eta aurrekoetan, besteak beste, generoen arteko desparekotasuna, giza eskubideen urraketa, bidegabekeria soziala, gure gizartean egun oso presente dagoen kulturartekotasuna, elkartasuna eta lankidetzaren.

«Oso atsegina da horrelako jaialdietan parte hartzea, ikasitakoa praktikan jarri daitekeelako; berehala hasi behar zara lanean, eta ideien bat bururatu behar zaizu ahalik eta lasterren, egingarria, eta horrek sormena garatzen laguntzen du, denbora muga duzunez», esan du Ane Zugaza Ikus-entzunezko Komunikazioko bigarren mailako ikasle eta Invisible Expressen azken edizioko ikusleen sariaren irabazleak "Sin Plan B ([https://www.youtube.com/watch?v=kB\\_Uj82uQVM](https://www.youtube.com/watch?v=kB_Uj82uQVM))" film laburragatik.

Estibaliz Alonsoren arabera, praktika mota horren bitartez, ikasleek zeharkako kompetentziak landu ditzakete, esaterako, talde lana, funtsezkoa dena komunikazioko profesional ororen berariazko prestakuntzan nahiz prestakuntza orokorrean.

«Ondo iruditzen zait mota horretako lehiaketetan parte hartzea ikasgaiko proiektu izatea, ikasleak mugitzera eta gauzak egitera animatzeko; izan ere, sarri askotan, inork akuitatu ezean, bertan gozo geratzen gara, eta ikasketa hauetan, baita beste batzuetan ere, mugitzea ezinbestekoa da: munduan barnatu, eta endredatzea», ondorioztatu du Zugazak.

**irudi galeria**